



ARDURADUNA: D'ELIKATUZ ZENTROA

PARTAIDEAK: D'ELIKATUZ, JUBILATUAK, JAKINTZA

DATA: Martxoan

DESKRIBAPENA:

D'ELIKATUZ zentroko elikadura eta gastronomia gunea eta Ordiziako azoka bisitatuz osasuntsu jatearen eta bertakoa jatearen onurak ezagutuko dituzte taldean eginiko jarduera batean. Taldeak ikasle eta jubilatuek osatuko dituzte elkarlanean.

BALIABIDEAK:

D' Elikatuz zentroa, bertako elikadura teknikaria eta Pili Eskisabel baserritarra, Ordiziako azoka.

HELBURUAK:

- Ordiziako azoka hobeto ezagutzea.
- Azokan erosten ditugun jakien jatorria eta freskotasuna ezagutzea.
- Garaian garaiko produktuen garrantziaz eta baserritarrekin dagoen zuzeneko harremanaz jabetzea.
- Elkar hobeto ezagutzea. ongi pasatzea...

METODOLOGIA:

1. JARDUERA: Ordiziako azokari buruzko ikus-entzunezko baten bitartez, azokaren jatorria, bertan saltzen diren produktuak eta antolatzen diren beste azoka bereziak ezagutu.

2. JARDUERA: Taldeak egin elikagaien arabera eta talde bakoitzari bere izaera eta funtzioak azaldu.

Galderak egin eta erantzun. Gorputz atalak lortu eta uraren kolorea zaindu. Gorputza osatu eta emaitza baloratu. Gorputz osasuntsua ala ez eta zergatik?

3. JARDUERA: taldeka azokan erosketa egin.
Erositako produktuen azterketa egin.
Erositako produktuen dastaketa bat eginez bukatu.

BALORAZIOA:

Oso esperientzia ona bai haurrentzat eta baita nagusientzat ere, elkarlanean oso ondo aritu zirelako eta haurrak oso zintzo eta arduratsu ibiltzea eragin zuelako. Umeek helduen laguntzarekin azokan ZER eros daitekeen ikasteaz gain, alde zurretik zuten dirua antolatzen ere ikusi dute: Zer eta ZENBAT erosi, gauzen balioaz konturatu...

OHARRAK

Herriko haur eta gaztetxoak eta helduak elkarrekin egun desberdinetan harremanetan jartzea oso aberasgarria da; izan ere, badute zer eskainia elkarri... Parte hartu zuten nagusien artean, %100 emakumezkoa izan zen.

2014-2015 IKASTURTEA



ARDURADUNA: D'ELIKATUZ ZENTROA

PARTAIDEAK: Jakintza Ikastola, Zuhaizti Zentroa, D'elikatuz Zentroa

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak Nagusiak

BALIABIDEAK:

D'elikatuz Zentroko baliabideak bertan egiten den zatirako, eta Ordiziako Azoka bera. D'elikatuz Zentroko Idoia Noain teknikaria eta Pili Eskisabel baserritarra jardun ziren ekintza koordinatzen.

HELBURUAK:

- * Gorputzaren funtzionamendu onerako elikadura egokiaren beharraz jabetzea.
- * Dieta orekatu baterako oinarrizko irizpideak eta jaki talde nagusiak ezagutzea.
- * Elikadurarekin loturiko ohiturak egokitzea.
- * Ingurumenaren zaintzaren aldeko jarrera bultzatu.

Prozedura

- * Zentroan: Zentroa ezagutu eta edukiak landuko dira zentroko baliabide eta material ezberdinen bidez.
- * Ekintza osagarriak: Azokako bisita, behi esne ekoizten duen baserri baten bisita, gaztagintza,....

BALORAZIOA:

Oso esperientzia ona bai haurrentzat eta baita nagusientzat ere, elkarlanean oso ondo aritu zirelako eta haurrak oso zintzo eta arduratsu ibiltzea eragin zuelako.

OHARRAK

Nagusien partaidetza %100 emakumezkoa izan zen